

HAUR-GAZTEENTZAKO GELA

Ekarri umeak Liburutegira txikitandik. Horrela...

IRAKURRIZ GOZATZEN IKASIKO DUTE. Horretarako...

- Asko irakurri haientzat, nahiz eta haiek irakurtzen jakin. Esaezu haiek ere zuri irakurtzeko.
- Lagundu ipuinak aukeratzeko.
- Ez itzazu irakurtzera behartu, animatu bakarrik; irakurtzea plazerra izan behar da.
- Irakurri umeen alboan, imitatu nahiko zaituzte; eta irakurritakoa elkarrekin komentatu.

LIBURUAK ZAINTZEN IKASIKO DUTE. Horretarako...

- Irakatsi liburuak ondo eusten, liburuetan ez margotzen, ez zikintzen, orriak kontuz pasatzen eta ez tolestean, ...

KONPARTITZEN IKASIKO DUTE. Horretarako...

- Animatu liburuak, filmak eta musika maileguan hartzen, etxera kontu handiz eramaten eta agindutako epean itzultzen, denok erabili ahal izateko.

LIBURUTEGIA ERABILTZEN IKASIKO DUTE. Horretarako...

- Ez utzi hemen askaria jaten, gela eta liburuak garbi mantentzeko.
- Ez utzi umei kornika egiten, oihukatzen edo ozen hitz egiten. Liburutegia leku lasaia izan behar da, lan egiteko eta irakurtzeko, eta ez parkearen ordezkoa.
- Esan umei altzariak zaintzeko
- Ordena oso garrantzitsua da Liburutegian. Lagundu liburuak lehen zeuden lekuan ipintzen. Lekukoak erabil ditzakezue (ikus lauki urdina)

Gogoratu...

Ume txikiak erraz aspertzen dira isilik eta geldirik leku itxi batean egoteaz. Ordu erdi nahiko eta lar izan daiteke liburutegiaz gozatzeko, nekatu gabe. Denbora gehiago egotera derrigortzen badituzu, zalaparta ederra egin dezakete eta gainerako erabiltzaileei eragozpenak sortu; gainera, baliteke itzuli gura ez izatea.

LEKUKOAK

"Lekukoak" koloretako kartulinak dira; liburuak lehen zeuden lekuetan jartzen lagunduko dizute. Honela erabiltzen dira: liburuak ikusten duzen bitartean, jarri kartulina bat liburuaren zegoen lekuan. Azkenean liburuak ez baduzue etxera eramaten, badakizue non zegoen lehen. Eta etxera eramatea erabakitzen baduzue, kendu lekukoak eta bere lekuan utzi.

Kontuan izatekoak...

Txikientzako liburuak buk-etan daude eta puntu urdina daukate. Etiketa bat ere badaukate, buk-aren zenbakiarekin; beraz, erraza da ordenatuta uztea (joko bat izan daiteke...)

Apal baxuetan ere ume txikientzako ipuinak daude, puntu gorri batekin. Alfabetikoki ordenatuta daude (lehenengo egilea, gero izenburua)